



## **EBAZPENA, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariarena, 2023-2024 ikasturteko bigarren epeko prestakuntza-jardueren behin betiko zerrendak jakinarazten dituena.**

Hezkuntzako Sailburuak 2023ko apirilaren 27an (maiatzak 11ko EHAA) emandako Aginduaren bidez, Prest Gara 2023-2024 Planaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleek prestakuntza- eta hobekuntza-jardueretan parte hartzeko baldintzak ezarri ziren.

2023ko urriaren 4ko Ebazpenaren bidez Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak prestakuntza-jardueren behin-behineko zerrendak argitaratu zituen, eskaera bakoitzaren egoera azalduz (onartua, erreserban edo baztertua), eta alegazioak aurkezteko edo parte hartzeari uko egiteko hamar eguneko epea ireki zen.

Alegazioak aurkezteko epea amaituta eta Hezkuntzako Sailburuaren 2023ko apirilaren 27ko Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuz, hau

### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa:** Prestakuntza-jardueren behin betiko zerrendak ebaztea, eskaera bakoitzaren egoera azalduta: onartua, erreserban edo baztertua; azken kasu honetan zergatia aipatuz.

**Bigarrena:** Plaza libreak dituzten ikastaroen behin-betiko zerrenda jakinaraztea (II. Eranskina). Ikastaro horietan parte hartu nahi dutenek Hezigunea aplikazioaren bidez eskaera aurkeztu ahal izango dute.

**Hirugarrena:** Eskaerak, baldintzak betetzen badituzte, jasotze hurrenkeraren arabera onartuko dira; plazak bete arte edo ikastaroa hasi baino egun batzuk lehenagorarte. Izen emateko aukera urriaren 20 gaituko da.

**Laugarrena:** Gutxienez bete beharreko plazak bete ezin izan dituzten ikastaroak bertan behera uztea (III. Eranskina).

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean

Amaia Agirre Pinedo

## **RESOLUCIÓN de la directora de Aprendizaje e Innovación Educativa, por la que se hacen públicas las listas definitivas de las actividades de formación de profesorado correspondientes al segundo plazo del curso 2023-2024.**

Mediante la Orden de 27 de abril de 2023 (BOPV de 11 de mayo) del Consejero de Educación se establecen las condiciones para la participación del profesorado no universitario de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las actividades de formación y perfeccionamiento dentro del Plan Prest\_Gara 2023-24.

Mediante Resolución de 4 de octubre de 2023, la directora de Aprendizaje e Innovación Educativa publicó las listas provisionales de cada actividad formativa, indicando la situación de cada solicitud (admitida, en reserva o excluida), y dio un plazo de diez días para presentar alegaciones o desistir de la solicitud.

Finalizado el plazo de alegaciones y en aplicación del artículo 7 de la citada Orden de 27 de abril de 2023, del Consejero de Educación,

### **RESUELVO:**

**Primero.-** Resolver las listas definitivas de cada actividad formativa, indicando la situación de cada solicitud: admitida, en reserva o excluida; señalando el motivo en este último caso.

**Segundo.-** Dar a conocer el listado definitivo de cursos con plazas libres (Anexo II). Quienes deseen participar en esos cursos podrán presentar la solicitud a través de la aplicación Hezigunea.

**Tercero.-** Las solicitudes, si cumplen los requisitos, serán admitidas en orden de solicitud; hasta llenar las plazas o hasta unos días antes de comenzar el curso. La posibilidad de inscribirse se habilitará el 20 de octubre.

**Cuarto.-** Anular los cursos en los que no se han conseguido cubrir las plazas que se tenían que cubrir como mínimo (Anexo III).

Vitoria-Gasteiz, a fecha de la firma